

HAMAHIRUGARREN IZARRA EDO ESTATU EREDUAREN ERALDAKETA EUROPAN

Joxerramon Bengoetxea

Zuzenbide Fakultatea (EHU/UPV)

DOI: <https://doi.org/10.47623/ivap-rvap.29.1991.02>

Herrietako Europaren ideiala lau haizetara oihukatzen ari da bai Euskal Herrian bai Europako beste naziotan Talde politiko abertzaleak Euskadiko egoera politikoaz kezkaturik daude: gaurko *statusa* zenbait puntutan, nazioarteko eta Europar Elkarteko gaietan batez ere, motza geratzen delako edo behar berriak eta harreman berriak sortu direlako eta Espainiar Konstituzioak arazo berri horietaz Euskadiri ez omen diolako konpetentziarik ematen. Ez ditut hemen euskal alderdi politikoen ideial honekiko jarrerak aztertuko, hori politikaren zientzilariei eta soziologoei baitagokie. Hemen ideial bera aztertu nahi nuke: zer esan nahi du Herrietako Europak? nola gauzatuko da? Eskatu ereduaren kritika bat zein neurrian suposatzen du? Europako egitura politikoa norantz doa? Estaturik gabeko edo estatu azpiko nazioen status juridiko-politikoak nolakoa izan beharko luke europa berri horretan? Nazio horiek Estatu Partaide berriak bihurtu behar al dute ala, daukaten statusatik abiatuz, *status juridiko-politiko* berri bat bilatu behar al dute?... Tamalez *inteligentziak* ez ditu oraindik galdera teoriko hauek sakonean eztabaidatu. Erreflexio gehienak politikariak burutzen ari dira, eta politikarien diskurtsoa erhetorikatik gertuago ibili da azterketa teorikorik baino.

Saiakera honen ildoa zera da: estatuaren eta subiranotasunaren teoria klasikoak zenbait ezaugarri postulatu ditu —botere osoa eta mailakaezina— baina errealitateari begiratu gero ezaugarri horiek ezinezkoak direla ikusten dugu: bai goitikan bai azpitik estatuak oso aldaketa sakonak jasaten hasi dira. Errealitatea eta teoria politiko klasikoaren arteko kontraste honen aurrean bi jarrera nagusi aurkitzen dugu: (1) faktuak aldatu teoria eta ideologiari egokitzeko ala (2) teoria eta ideologia bera aldatu faktuak azaldu ahal izateko. Nire uste apalean errealitate konplexua interpretatzeko teoria berri bat behar da baina orain arte egin diren saio teorikoek faktu berriak teoria zaharkituari egokitzea izan dute helburu eta ez estatu eredu klasikoa gaindituko duen teoria berri bat sortzea. Goian esan dudana bezala, teorikileak politikarien atzetik ibili dira; politikari aunitzek estatuaren eredu gaindituko duen Europa bat eskatzen baitute baina eskaera hori ez da orain arte teorikoki garatu. Ene artikulu honek hutsune teoriko hori betetzea du helburu.

Aukera politikoak ugari dira: (1) Europar Elkarteko beste Estatu Partaideek (adibidez Luxemburgek edo Belgiek) duten *statusa* lortzea; status hori ez da estatuen eredu klasikoa izanen baizik eta *kondar estatutasun* bat, alegia Europar batasuna gauzatzen denean estatuei geldituko zaizkien ezaugarri erresidualak. (2) Beste aukera bat zera da: status berezirik ez izan eta Europarekiko harremanetan Estatu Espainiarra eta Frantziarraren bitartekotza onartu; hau ez da eusko abertzaleen proposamena, noski. (3) Beste aukera bat zera litzateke: status komunitario berezi bat asmatu baina Estatu Partaide bihurtzeke. Politika mailan aukera oro zilegi izan arren bakoitzaren helburu politikoen arabera hautatuko da bata edo bestea. Bigarren aukerak Euskadiren oraingo egoera mantenduko

luke eta artikulua honen abiapuntuarekin, alegia Herrietako Europarekin. ez da ongi uztartzen. Hautaketa politikoa beraz 1. eta 2. aukeren artean egonen da nonbait. Artikulu honetan egin nahi dudana zera da: Europar Batuak suposatzen duena interpretatu, estatu kontzeptua jasaten ari den aldaketak aztertu eta Euskadi bezalako nazio bati datu hauetatik eratorzen zaizkion ondorio juridiko politikoak aintzakotzat hartu.

Artikulu honen titulua argitu nahirik ohartxo bat dihoakizue: hamahirugarren izar hori, askoren ustez Euskadik behar du izan, beste hamabi estatu partaideen ondo ondoan. Noski Euskadik bere leku propioa izatea nahi dut, baina ez Euskadik bakarrik; baita Skoiatk, Breizhek edo Korsikak ere. Zergatik hamahiru eta ez hamazortzi? Beraz, zentzu honetan, Europar Elkartearen ikurriñan hamahirugarren izar bat bakarrik jartzeari ez derizot guztiz zilegi beste Europako herriak baztertzeko badira eta estatuaren moldea kritikarik gabe asumitzen ba da. Baina hamahirugarren izarren ikurrak badu beste esanahi posible bat: estatu azpiko Europar nazio guztien *sinboloa* izatea. Horrela, hamahirugarren izar horrek bai Euskadi, bai Skotia, bai beste edozein estatu gabeko Europar nazio bat ordezkatu litzake, estatu gabeko europar nazio guztien ikurra izaki eta Europar Elkartearen zerbait berezia badagoela gogoaraziz, oraindik konpondu ez den zerbait. Estatu Partaideen ereduarekin bat ez datorren zerbait.

Lan honek lau zati ditu. Lehenbizikoan Estatu eta subiranotasun ereduaren akatsak agerian jarri nahi nituzke: nolakoak dira Estatuak gaur egungo Europan zer nolako aldaketak ari dira jasaten estatua eta subiranotasunaren doktrina azpitik eta goitik?... Bigarren zatian estatuaren barneko aldaketaz eta estatu azpiko nazioen arazo batetat arituko natzaizue problema jakin baten inguruan: zer gertatzen da nazio horiek kontrolatzen dituzten estatuak estatu gairik erakunde batean sartzen direnean? zeintzuk dira estatugabeko nazio horien aurrerabideak eta kompetenziak erakunde berriaren baitan? Euskadiko arazoa da hemen aztertuko duguna. Hirugarrenean estatuaren goiko aldaketak, Europan eta Europar Elkartearen gertatzen ari diren aldaketak eta mugimenduak aipatu nahi nituzke eta azkenekoan, konklusio gisa, hiru zatietan zehar egindako burutazioak elkarlotuko ditut Euskadiri dagozkion ondorioak atereaz.

1. ESTATUA ETA SUBIRANOTASUNA

Estatu ereduaren eta honen eskutik sortatuko subiranotasunaren teoriaren eraldaketa aztertu nahi dut, eta bidenabar europar estatuaren gertatzen ari diren aldaketak estatu eredu klasikoarekin zein punturaino diren bideragarri deliberratu. Estatuaren eta subiranotasunaren teoria klasikoan subiranoak, bat eta bakarra baita, halako ahalmen osoa du, bai interesatzen zaion politika aurrera eramateko ahalmena, bai bere menpean dagoen gizartea arautzeko ahalmena, bai estatua kanpoko mehatxuengandik babesteko eta kanpotik etorritako arauetatik edo obligazioetatik gerizatzeko boterea. Zati honetan zehar ahalmen hauek bai teoria gaurkidean bai errealitatean zein mugatuak diren ikusiko dugu.

1.1. Subiranotasunaren azterketa

Subiranotasuna aztertzea zaila da oso: alde batetik diziplina ezberdinak — zuzenbidearen filosofia eta teoria, filosofia eta historia politikoa. teoria soziologikoa

eta antropologikoa (1)— konbinatu behar direlako eta bestaldetik kontzeptu hau oso abstraktu eta irristakor delako eta *zama hunkitzaile* bat delako (2): subiranotasuna eta teoria politikoaren beste antzeko terminoak ez dira kontzeptuak, *pseudokontzeptuak* baizik eta termino horiek erhetorikan oso erabiliak dira: erakunde politiko bat defenditu nahi denean «subiranotasuna», «demokrazia» edo «eskubidea» bezalako termino erhetorikoak erabiltzea erakundearen aldeko arrazoi bat ematea bezain eragingarri da; adibidez Euskadiko autodeterminazio eskubidearen aurka jarri direnak argudiatu dute espainiar nazioaren subiranotasuna arriskuan jarri dela eta subiranotasun hori espainiar nazio osoari dagokiola, beraientzat espainiar nazioa partiezina izaki, baina ez digute inoiz argitu subiranotasun hori zer den edo nola arriska daitekeen edo zergatik espainiar nazioak bakarra eta zatiezina izan behar duenik.

Subiranotasunaren teoria, azaltzaile edo deskribatzaile baino araugile edo preskribatzaileagoa da: nahiz eta azterketa deskribatzaile batek subiranotasun osoa — estatuaren botere absolutua— ezinezkoa dela erakutsi, hala eta guztiz ere estatuak subiranotasun osoa *desideratum* bat bezala erabiltzen jarraitzen dute, nazioarteko harremanetan batez ere. Baina subiranotasun osoa *desideratum* bezala mantentzen baldin bada orduan nola esplikatu dira subiranotasun osoarekin bateraezinak diren antolaketak adibidez estatu gaineko erakunde bati botereak eta kompetentziak pasatzen dizkieten antolaketak? Paradoxa hau zenbait kasutan agerian dago; adibidez Erresuma Batuak parlamentuaren subiranotasun doktrinari —*the Queen in Parliament*— gogor eusten dio (Frantziak subiranotasun nazionalari gogor eusten dion bezala) eta estatu hau Europar Elkartearen sartu zenean horko politikari askok subiranotasuna arriskuan jarri izan zela aldarrikatu zuten, Euskadin autodeterminazioaren inguruko eztabaida Eusko Legebiltzarrean egin denean abertzale espainiarrek argudiatu duten bezalaxe. Beraz barneko gaiekiko subiranotasun osoaren teoria kanpoko gaiekiko subiranotasun osoaren teoriarekin —zeinaren arabera estatuak kanpoko eragin juridikoak nahi duen moduan bazter ala hauta baititzake— uztargarria da. Eta alderantziz, barneko subiranotasun mugatuaren eta konpartituaren doktrina —Alemania eta Suitza bezalako estatu federalek mantentzen dutena alegia— kanpoko subiranotasun mugatuarekin ongi moldatzen da eta errealitatetik hurbilago dago.

1.2. Subiranotasuna teoria juridikoan

Zuzenbidearen teoriaren eta filosofiaren ikuspuntutik eta subiranotasunari dagokionez Austinen eta Kelsenen teoriak izan dira eraginkorrenak (3). Austin

(1) Antropologia politikoan estatu aurreko gizarteak ikasten dira gehienbat. Gure azterketa honetan ez gara antropologian sartuko, estatuaren eraldaketa aztertu nahi dugu eta. Antropologiaren ikuspuntua ezagutzeko ikus adibidez F.H. Hinsley, *El concepto de soberanía*, Barcelona. 1972. Hinsleyk kontzeptuaren historia aurkezten digu ere bai.

(2) Erran nahi baita, badirela kontzeptu batzuk —suberania, demokrazia, zuzenbidea, boterea, zapalkuntza, delitua, terrorismoa etab— beren esan nahi teoriko-deskribatzaileaz aparte bertze ezaugarri dinamiko bat dutela, sentimenduak gidatzearena edo baikortasun ala ezezkortasun bat ematearena —magnetismoarena— alegia. Eta kontzeptu hunkitzaile hauen azterketa zail xamar gertatzen zaigu eduki teoriko-semantikoa eta zama hunkitzailea bereizten ez dugun bitartean (M. Warnock, *Ethics since 1900*, Oxford 1960, *Etica contemporanea*, Barcelona 1968: 77-104).

(3) Estatuaren arazoa filosofia juridikoan ez dugu hemen aztertuko. Erran dezadan bakarrik teoria juridiko gehienek zuzenbidearen definizioan estatu postulatzen dutela. Estaturik gehien urrundu den teoria zuzenbidearen teoria instituzionalista da. Horretarako ikus nire «Institutions, Legal Theory and EC law» ARSP, argitzear.

britainiarren ustez subiranotasunaren existentziarena ez zen galdera moralik baizik eta galdera politiko hutsa: subiranotasuna egoteko bi baldintza dago: herritarrek nagusi (dela pertsona bati, dela instituzio) bati obeditze aztura izatea eta nagusi horrek inori obeditu behar ez izatea. Zuzenbideak ezin du subiranoa mugatu zuzenbidea subiranoaren beraren agindua delako: «lege positiboak gorengo boterea mugatzea kontradikzio bat da... Gorengo gobernu bakoitza juridikoki despotikoa da» (4). Austinek Erresuma Batuen subiranotasuna mailarik altueneko momentuan idatzi zuen. Deskribatzaile izan nahi zuen teoria horrek ezin izango zuen gaur estatu gaineko erakundeen fenomenoaz azaldu, non estatu subiranoa bere burua juridikoki mugatzen duen.

Kelsenentzat estatua ordenamendu juridiko bera da eta estatuan autoritate politikoa zuzenbidetik dator; zuzenbideak halako *summa protestas* bat auresuposatzen du eta honen bidezkotzea arau batean datza beti; zuzenbidearen gain ez dago ezer eta beraz subiranotasunaren arazoa ez da planteatzen. Normatibismo honen akatsa politikaren eragina gutxiesten da eta beraz subiranotasunaren erabilpen praktiko eta erhetorikoa ezin du ongi azaldu. Austinek politika erdi erdian jarri baldin bazuen, Kelsenek gutxietsi egin zuen. Politikaren birbalorapena Carl Schmittek ekarri zuen baina ez, Weberen moduan, soziologiaren eskutik baizik eta teologia politikoa eginez *à la Hobbes*. Schmittek estatuaren krisiaz hitzegi zuen eta teoria juridikoaren formalismoaren kritikari egin zion. Baina estatuaren kritika hori oso momentu historiko zehatz batean egin zuen, europar *ius publicum*aren krisia eta nazismoa agerian azaltzen zirelarik (5). Autore honen eskutik subiranotasunaren azterketa teoria politikora itzuli zen. Subiranotasunaren teoria germaniarrean beti egon da halako egonezin bat federalismoarekiko: estatu teoriaren baitan subiranotasun partietzinekoaren doktrinaren eraginaz estatu federala eta estatu unitarioa berdinduak izan dira. Subiranotasunaren doktrina klasikoaren moldetan estatu federala pentsatuezina da: estatua ezin da zatitu, subiranotasuna zatiezina delako (6).

Gaurko teoria politiko eta juridikoan subiranotasunaren legitimazio edo bidezkotze bat eskatzen da eta mugaezinezko ahalmen juridikoa ez da onartzen. Zuzenbidezko estatuaren doktrinak muga juridikoen garrantzia, bai edukiaren mugak —giza eskubideen babesa bereziaren bidez eta legezkotasuna eta aurrikusgarritasuna printzipioen bidez— bai muga formalak —konstituziotasuna, hierarkia, eta kompetentzia printzipioen bidez— azpimarratzen ditu (7). Gaur egungo teoria eta filosofia politikoan *estatuaren arrazoia* arrazoitu egin behar da eta ez da gehiago dogmatzat jotzen.

(4) «Supreme power limited by positive law is a flat contradiction in terms... Every supreme government is legally despotic», *The Province of Jurisprudence Determined*. London 1832 (1955): 254, 271.

(5) Ikus Pier Paolo Portinaro, *La crisi dello ius publicum europaeum*, Milano 1982; momentu historiko honen ezaugarri bi aipatzearen horra hor Nazioen Sociedadearen anbiguitatea eta Zuzenbidezko Estatuaren porrota Weimar errepublikan batez ere.

(6) Ik. Thomas Fleiner-Gerster, *Theorie generale de l'Etat*, Geneve 1986: 3. kap (1-5).

(7) Zuzenbidezko doktrina honen inguruan ikus nire «Positibismo Juridikoa. Zuzenbidezko Estatua eta Epailea» in 19, *Revista Vasca de Administracion Publica*, 1987.

1.3. Subiranotasuna Nazioarteko zuzenbidean

Nazioarteko zuzenbide klasikoan nazioarteko komunitatea estatuak osatzen zuten soil soilik eta estatuak definizioz subiranoak ziren, subiranotasun osoa zeukaten barne arazoetan. Kanpo arazoetan estatuaren subiranotasuna botere faktikoaren arazo bat zen baina estatuaren independentzia eta lurralde osotasuna errespetatu beharra zegoela onartzen zen. Esan dezadan, bide batez, nazioarteko zuzenbide klasikoa erabat eurozentrikoa zela (8).

Nazioarteko zuzenbide gaurkidean oso fenomeno interesgarri bat agertu da. Ez gaitezen engaina; estatuak dira nazioarteko komunitatearen eta zuzenbidearen *dramatis personae* edo sujet nagusiak. Eta dauden 170 estatutatik nazioarteko egiazko autoritate eta boteredunak eskukada bat besterik ez dira. Hala ere bigarren mundu gerratetik gaurdaino beste sujet batzuk agertu dira nazioarteko komunitatean eta sujet hauen status juridikoa onartu da nazioarteko zuzenbidean alegia *herriak*, *nazioarteko erakundeak* eta baita *gizabanakoak* ere (europar erakundetean bereziki). Nazioarteko entpresak (*multinational corporations*) ez dira nazioarteko sujetik, nahiz eta hauek jeneralean estatu asko baino botere ekonomiko eta politiko gehiago izan (9).

Hemendik ez da segitzen Euskadi bezalako estatu azpiko nazioak automatikoki nazioarteko sujetak izan direnik, baina bai nazioarteko komunitatean gero eta polimorfismo handiago bat dagoela eta estatu ez diren sujetak onartuz doazela. Nazioarteko komunitatea eta honi gertutik darraion nazioarteko zuzenbidea egunetik egunera eraldatzen ari dira; eta Europar Elkartearen berezitasuna, estatu gaineko erakunde bat izaki, eta honen baitan emanen den estatu azpiko nazioen presentzia kontutan harturik, posible da egunen batean polimorfismo hori areagotzea, nazio horien sujet statusa aintzakotzat hartuz. Gainera autodeterminaziorako eskubidea indar berriak ari da hartzen nazioarteko zuzenbidean. Alemaniako birbatasuna eta Sobiet Batasuneko eta Yugoslaviako Errepublika batzuen eskaerek autodeterminazioa dute abiapuntu. Teoria marxistak eta nazioarteko zuzenbide klasikoak sinestarazi nahi zigutenaren aurka autodeterminazioa ez da gehiago kolonizazioaren arazo soila baizik eta nazio guztiek duten eskubide demokratiko bat: beren etorkizunari buruz erabakitze eskubidea (10).

1.4. Subiranotasuna filosofia moral eta politikoan

Subiranotasun kontzeptua aztertzerakoan gizarte zibila eta estatuaren arteko harremanak kontuan hartzekoak dira. Gizarte zibila zenbait kasutan estatu-nazioa baino zabalagoa da (estatu ezberdinetan dauden etniak, *inteligentzia* kasu) eta kasu askotan estatu-nazioa baino txikiagoa (gutxiengo etenikoak, pluralismo

(8) Ikus adibidez Yasuaki Onuma: «Between Natural Rights of Man and Fundamental Rights of States» in Neil MacCormick and Zenon Bankowski (eds): *Enlightenment, Rights and Revolutions*, Aberdeen 1989.

(9) Ikus ANTONIO CASSESE, *International Law in a Divided World*, Oxford 1986: 4. kap. Cassese'k dio, herrien onespena, nazioarteko sujet bezala, estatu sozialistek lortu dutela autodeterminazioaren printzipioa oinarritzat hartuz eta gizabanakoen onespena estatu liberalen garaipena dela.

(10) Beraz gaiaren planteamendu juridiko soilek ez dute deus ere argitzen; benetako problema politikoak da: ea nazio baten gehiengoak nazio horren etorkizun politikoari buruz erabakitzen duen. Ideia hau G. MONREAL ene lankideari zor diot.

kulturala eta soziala kasu). Non kokatzen da subiranotasuna? pertsona batengan? estatuan, erakunde instituzionaldua bezala? eta hala balitz. Parlamentuan, gobernuan, administrazioan? ala nazioan? ala herritarrengan? ala bestela legean edo konstituzioan? Subiranotasuna kokatzea legitimitatea kokatzea bezain zaila da. Kokatzen den entitatean kokatzen dela subiranotasun teoretan obeditzearen beharra inpliziturik dago beti: botere eta indarraren bestekaldea legitimitatea eta obeditzea da. Bernard Williamsek esan du teoria etiko-politiko klasikoetan, Aristotelerengan, Hegelengan, Utilitarismoarengan kasu. gizabanakoei zuzenduriko moral bati *res publicaren* teoria bat zegokiola eta honen ondorioz botere publiko subiranoari obeditzea gizabanakoaren betebeharrak moral bat bilakatzen zela. Gaur egungo estatuaren teoriek doktrina bikoitz (etiko-politiko) eta orokor hori alde batera utzi beharko lukete.

The present suggestion is that we should give up this assumption, and concentrate on unities of ethical experience between groups of people who are less than the population of a state —the more familiar pluralist picture— but also on groups that cross its boundaries. Particularly with modern forms of communication, a «constituency» of persons need not live contiguously to one another (11).

Estatuari dimentsio etikoa eta dimentsio teologiko-politikoa kentzen zaizkionean juridikotasuna eta botere faktiko hutsa gelditzen dira. Boterearen eragina zuzenbidearen edukian eta zuzenbidearen eustarri izatean datza. Etikaren galdera eta honekin lotuta dagoen legitimitatearen galdera boterearen erabileraren inguruan planteatzen dira. Juridikotasuna, azken finean, pertsonalitate juridiko duen instituzio konplexu bat da; estatua inputazio juridikoaren puntutzat jotzen da: horrela, juridikoki estatua administrazio (ordenamendu juridiko eta erakunde juridiko) bat da eta zentzu honetan estatu eta beste erakunde konplexuen artean ez dago ezberdintasun handirik: batak kompetentzi eta ardura gehiago eta lotura eta muga gutxiago izango ditu besteak baino baina guztiak —bai estatuak bai estatu gaineko erakundeak bai estatu azpiko autonomodun administrazioak— dira ordenamendu eta erakunde juridikoak.

Baina behin boterea kontuan hartuz eta soziologia eta politikaren ikuspuntutik begiratzu orduan estatu eta beste erakunderen arteko ezberdintasunak nabari dira: boterea estatuan, estatu gaineko erakundetan eta estatu azpiko administrazioetan era ezberdinetan adierazten zaigu, arlo ezberdinetan, kontzentrazio maila ezberdinetan, intentsitate ezberdinetan, konpromezu eta negoziaketak erlazio ezberdinetan eta kontrolgarrtasun maila ezberdinetan.

Etikaren galdera boterearen erabileraren inguruan planteatzen dela esan dut; beraz galdera etikoa eta boterearen legitimizazioa izan ezberdinean planteatuko da erakunde batean ala bestean segun eta boterea zein neurrian kementsuagoa, sarkorragoa eta hedatuagoa (estatuan) ala ahulagoa, bananduagoa eta murriztagoa (estatu gaineko erakundetan) den. Baina planteatu, boteredun erakunde guztiengan planteatzen da eta lehen esan den bezala gaurko politikaren filosofiariek boterearen adierazpen guztien bidezkoetza eskatzen dute.

(11) «Modernity and the Substance of Ethical Life» in *Primo Convegno della Biblioteca Mulino: Etica e Vita Quotidiana*. Bologna 1989: 45.

Subiranotasunaren teoria klasikoan boterearen bidezkatze beharra hori pentsatuezina da. Baina gaurko teorian arazo nagusia ez da boterea bidezkatu behar izatea ala ez izatea (baietz ikusi dugu) baizik eta bidezkatze hori non eta nola gauzatuko den: estatu gaineko instituzio'baten aurrean (dela Europar Giza Eskubideen Auzitegian dela Europar Elkartearen instituzioen aurrean) ala estatuko instituzio baten baitan? iritzi publikoaren aurrean? eta diskurtso ireki batez ala *estatuaren arrazoien* eremu bat onartuz? Hauek dira benetako galderak, Habermas bezalako filosofariek planteatu dituztenak: ekintza eta iritzi politiko (eta etiko) guztiak diskurtso errazionalen bidezkatu egin behar dira, inolako salbuespenik gabe. Ez estatuaren arrazoiak ezta subiranotasunaren aitzakiak ezin dute bidezkatzearen behar hori deuseztatu.

1.5. Subiranotasuna eta botere faktikoa

Lehen esan dudan moduan, subiranotasunaren azterketak diziplina artekoa behar du izan, beraz ez gaitezen beste gai batzuetaz ahaztu hala nola gaurko gizarte teknologikoaren ezaugarrietaz eta botere ekonomiko, politiko, teknologiko eta militarren kontzentrazioetat.

1.5.1. Nazioarteko entrepresen gehitze eta indartze prozesua dela eta, Estatu-nazioaren boterea gutxituz doa. Sistema kapitalistaren egitura eta funtzionamendua aldatzen ari dira munduan zehar. Askotan esaten den bezala *kapitalak ez du aberririk* eta entrepresen interesak ez dira beti estatuen interesekin uztartzen. Prozesu guzti hauen ondorioz subiranotasunaren kontzeptua aldatuz doa: teoria klasikoaren arabera estatuak informazioa eta prozesu ekonomikoa kontrolatzeko ahalmen osoa zeukan baina gaur egun hori ezinezkoa dela onartzen da eta boterearen adierazpen guztien bidezkatzea eskatzen da. Gaurko teorian subiranotasuna mailakagarri da. Jauregi'ren esanetan (12):

«El Estado nacional esta haciendo aguas por arriba y por abajo. Desde la perspectiva economica esta dejando cada vez mas de ejercer un papel mediador entre las regiones economicas y las instancias de poder supranacionales, y de ejercer un control o una oposicion de la actuacion de los oligopolios.»

Beren mugen baitan empresa umekiak edo filialak dituzten estatuak ez dute ahalmenik umeki edo filial horiek zerga sistema batez kontrolatzeko, ezta monopolioak edo oligopolioak kontrolatuko dituen lehiaketa araudi bati ekiteko edota moneta-politikaren bat bideratzeko ere, empresa amakien estatuen eredia normalean empresa umekiak dauden estatu txikiei inposatzen zaielako. Europar Elkartearen ez da horrelakorik gertatzen. Europar Elkartearen kasuan elementu komunitarioren bat baldin badago empresa hauetan —hau da empresa bat Elkarte bi Estatu Partaideetan mugitzen bada— orduan empresa hori (behin kapital kopuru bat pasatzen denean) Europar konpainiatzat jo daiteke, Europar Elkartearen konpainia araudi berezi bat eta lehiaketa sistema komunitario bat ezartzen zaiolarik. Baina kontua da ea Europar Elkartearen instituzioak (Batzordea batez ere) lehen estatuak jokatzeko zuten paper hori betetzeko gai izanen diren eta ea Estatu Partaideek horretarako ahalmena eta botereak

(12) *Contra el Estado-Nacion*, Madrid, 1986: 210.

pasatzen dizkioten. Europar Elkartea batasun ekonomiko eta monetarioaren bidean dago —Banku zentral batekin eta moneta amankomun batekin. Batasun monetal eta ekonomiko horrek segurtasun eta egonkortasun gehiago ekarriko omen du, Estatu Partaideek banan bana lortu ezin izango zuten segurtasuna. Azalean subiranotasun galera bezala agertzen den prozesua sakonago aztertuz gero irabazitzat jo daiteke.

1.5.2. Bestalde *mass media* direlakoen kontra boterea dago. Informazio zabalak eta prentsa demokratikoak boterea kontrolatu egiten du baina baita, hein batean bederen, bidezkotu ere, botereak diskurtso irekia eta oposizioa onartzen dituenaren irudia zabaltzen duelako; propaganda tresnak bihurtzen diren informazio konpainiak askotan ondorioa dute. Pentsatu adibidez sortaldeko europar azken urteotan gertatzen zenaz: horko prentsa eta informazio zerbitzuak kontrolpean, zentsurapean zeuden eta boterearen morroi. Hala ere jendea ez zen tranpa hortan erori.

1.5.3. Hirugarrenez aliantza militarrek daude, NATO kasu, non estrategia militarrengaindiko konpetentzia Estatuak soilak ez du; konpetentzia hori gorengo mandu bati dagokiolarik. Europa mailan gertatzen ari diren aldaketa geopolitikoak direla eta zaila da prognosi bat egitea. Warsaw paktua desegiten ari da. Bi Germanien batasun prozesua Bigarren Gerrate Mundiala irabazi zuten lau potentziek (SESB, USA, Erresuma Batua, Frantzia) gehi bi Alemaniak osaturiko batzorde bat (4 + 2) gainbegiratzen ari da gai militarretan. Aliantza militar hauek, alde batetik estatuaren boterea murrizten dute, gai militarretan erabakiak hartzeko estatu gaineko erakunde baten oniritzia beharrezko bihurtzen delarik: baina bestalde, aliantza horiek estatuen figura tinkatzen dutela ere esan daiteke; erakunde horiek estatuek beraiek muntatuak baitira eta estatu—ez diren unitaterik ez direlako erakunde horiengan ametitzen. Gainera aliantza horiek burutzen dituzten ekintzak eta lortzen duten disuasio efektua ezin izango zuten aliantza hauen Estatu Partaide txikiek beren kabuz soilik lortu. Beraz gai militarretan ere subiranotasuna ez da ahalmen oso bat, ez da «guztia ala deusez» (*all or nothing*) arazo bat baizik eta mailakagarri edo banagarri den zerbait.

1.5.4. Teknologia mailan ere bai, estatuek, europar estatu txikiek batez ere, ez daukate politika teknologiko autonomo bat bideratzeko behar den botererik. Arazo hau ekonomiari oso loturik dago: berrirapenak eta teknologia berriek ekonomia bizkortzen dute; ikerketa + garapenerako inbertsio ikaragarriak behar dira eta ikerkuntza multinazional batzuen eskutan dago praktikoki. Behar den diru kopuruak nazioarteko elkarlana beharrezkoa egiten du. Europar bezalako estatu txikiek batez ere ezin dute beren politika propioa eraman eta europar estatu guztiei elkarlana interesatzen zaie. Europar Elkartean prozesu hau argi dago: EUREKA, ERASMUS, TEMPUS, COMETT, ESPRIT, eta abarreko ikerketa, entrepresen eta unibertsitateen programak lekuko; eta Elkarteko entepresei laguntza eta pribilegio bereziak onartzen zaizkie beste entepresekin —Estatu Barruarekin, Japoniarrekin— lehiakatu ahal izateko. Elkartearen gidaritza eta koordinazioa (orain arte CCF, SCAR, CREST eta CERD komiteak eraman dutena) beharrezkoa egin da. Teknologiarren kasuan beraz, estatu txikientzat Europar Elkartearen boterea ez zaie subiranotasunaren galera bat bezala agertzen, subiranotasun irabazia bezala baizik; beren kabuz ezin izango zuten politika teknologikorik ezta eduki ere, kanpoko multinazionalen mesedeetara geldituko zirelarik, baina Europar Elkartean sartuz gero beste estatuekin batera posible zaie ikerketa + garapen teknologikoan zerbait egin.

1.6. Subiranotasunaren kontzeptu berria

Ikuspuntu ezberdinetik ikusi dugu nolatan, teoria klasikoak postulatzeko zuenaren aurka, subiranotasuna gauza konpartigarri eta mailakagarri bat den. Orain bota genezakeen galdera zera da: ea kontzeptua bera mantendu beharko genukeen ala alderantziz gure diskurtsoetik baztertu. Bere esan nahi klasikoan subiranotasuna zimarku bat da eta beraz ez zaigu diskurtso teoriko batean balioko. Muturrezko abertzaleek estatuaren boterea babesteko erabiliko dute beren diskurtso erhetorikoan baina kasu horretan kontzeptuak ez du izan balio azaltzale edo deskribatzailek eta subiranotasun kontzeptuaren zama hunkikorrek diskurtso teorikoa trabatu egingo du. Baina hemen eman diogun esan nahian, alegia subiranotasuna botere eta ezaugarri mailakagarri bezala, kontzeptu deskribatzaile egoki bat litzateke. Gauzak horrela, posible da esatea: (i) estatu batek beste estatu bat edo erakunde bat baino orokorrean subiranotasun maila altuago duela edo (ii) arlo batean —esate baterako ekonomia teknologia arlotan— subiranotasun maila altu bat duela eta beste arlo batean —arlo militarrean adibidez— subiranotasun maila baxua duela (Alemania kasu), edota (iii) estatu batek beste estaturekin edo beste estatu azpiko nazioekin subiranotasuna banatzen duela. Gauzak horrela subiranotasuna erabaki autonomo edo partituak hartzeko gaitasunatzat joko dugu. Azter dezagun bada nolatan subiranotasun kontzeptzio berri hori europar estatuak jasaten ari diren eraldaketak interpretatzeko baliagarri den.

2. ESTATUAREN DESZENTRALIZAZIOA ETA NAZIOARTEKO HARREMANAK

Estatu arteko dependentzia areagotzen ari da eta dependentzia honek elkarlana beharrezkoa egiten du. Kontzentrazio ekonomikoari aurre egin behar zaio eta horretarako estatua gainditzen duten erakundeak premiazkoak dira. Nazioarteko trukea gero eta hedatuago, errekurtsio naturalak gero eta urriago (petroleoarekin gertatzen ari dena esate baterako), eta ingurugiroa eta desoreka ekonomikoaren problema planetarioak handiagotzen ari diren honetan estatu arteko elkarlan hori gero eta premiazkoagoak egiten ari dira. Baina estatu gaineko arazo horietaz aparte badago estatuazpiko arazorik ere bai. Gizabanakoak gero eta komunitate txikiagotan bizi nahi du: auzoan, herrian, bere elkarte sozial, politiko, sindikal eta kulturaletan, azken finean gizakiak Gemeinschaft batean bizi nahi du. Komunitate bizitza hori posible izan dadin estatuak erakunde autonomo txikiagoei boterea eta kompetentziak itzuli beharko dizkie, barneko instituzioekin subiranotasuna partitu beharko du. Azter dezagun bada Euskadiko kasuan arazo hauek nola agertu diren. Aurrez aurre ohar bat: Euskadi esaten dudanean Euskadiko Komunitate Autonomoa esan nahi dut. Euskalerriko beste zatiek, abertzale garenon ustez Euskadi baitira, momentuz azterketa ezberdin bat behar dute, batasun politikoa lortzen ez dugun bitartean.

Nazioarteko harremanak eta Euskadiko Komunitate Autonomoak (EKA) gaurko marko juridikoan dituen aukerak aztertu nahi ditut orain, kompetentzien banaketaren arazo orokorrean sartu gabe. Hori ikusi ondoren galdera bati ekingo diogu: subiranotasun maila onargarri (gehiengoarentzat onargarri) bati heltzeko gaurko status hori aldatu ala mantendu beharko al dugu?

2.1. EKAREN kompetentziak nazioarteko arloan

EKAREN kompetentziak eta ahalmenak nazioarteko harremanetan eta momentuz Europar Elkarteko zuzenbidea alboan utziz, ez daude oso argi. Bi testu juridikoen azterketa eta interpretazio sistemiko bat beharrezko egiten zaigu alegia espainiar Konstituzioarena eta euskal Estatuarena (13).

2.1.1. Espainiar Konstituzioaren 149.13en atalak bakarrik dio Estatuak kompetentzi eskusiboa duela nazioarteko harremanetan. Atala hau ambiguo eta gaizki sortua da eta subiranotasun osoaren kontzepzioaren eragina bistan da. Espainiar estatuaren eraketa administratiboa (Komunitate Autonomotan eta administrazio zentrolean, administrazio lokalak ahazteke, egituratzen baita) konplexu dela ahaztu omen zitzaizen atala honen egileei eta bestalde «nazioarteko harremanak» gai berezi bat balitz —nekazaritza, industria eta beste antzeko gaiak bezala— erabiltzen dute. Baina nazioarteko harremanak ez dira gai berezirik, beste gai asko planteatzen diren ekintza arloa baizik: nazioarteko harremanetan nekazaritza, industria, defentsa. energia, garraioak, ingurugiroa. eta abarreko gaiak planteatzen dira.

2.1.2. Euskadiko Autonomi Estatuak (EAEK) Euskal Komunitate Autonomoaren (EKAREN) ekintza bat nazioarteko harremanetan posible egiten du hiru arlotan.

(1) EKARI interesatzen zaion gaiaren batean Estatuak nazioarteko tratadu edo akordio bat negoziatzen duenean EKAK informazio eskubidea du (EAEren 20.5. atala),

(2) Estatuak egiten dituen tratatu edo akordioak EKAK betearaz eta ezar ditzake bere jurisdikzioan bere kompetentziagai baldin badira (EAEren 20. 3. atala), eta

(3) Estatuan kultur harremanetan sartzeko tratatuak edo akordioak negoziatzen eska diezaioke EKAK.

Gainera, EKAK Estuari EKAREN kompetentziak aldatuko litzuzkeen trataturik egitea diezaioke eta Estatuak zenbait gaietarako *treaty-making power* aurretik espreski legea diezaioke EKARI Espainiar Konstituzioaren 150.2. etala erabiliz.

2.2. Europar Elkartearen zuzenbidean

Europar Elkartearen zuzenbideari dagokionez. azterketa berezi bati ekin behar zaio, honoko testuetan oinarriturik: Elkarrekin eratzten dituzten Tratatuak (Pariseko Tratatu eta Erromako bi Tratatuak). Espainiar Konstituzioa (93. at) eta Ley 2/1986 (19-2-86) de Bases sobre la Recepcion del Ordenamiento de las Comunidades Europeas en el ambito de la Comunidad Autonoma del País Vasco (14).

2.2.1. Espainiar Konstituzioaren 149.1.3.gn atalaren interpretazio murriztaren arabera Estatuak da kompetentziadun bakarra, baina,

(13) Azterketa hau egiterakoan Gurutz Jauregiren honako lan hau jarraitu dut: *La Comunidad Autonoma del País Vasco y las Relaciones Internacionales*. Oñati 1989 h. 121 125.

(14) Ikus JOSE PALACIO GONZALEZ: «El sistema de distribucion de competencias entre el poder central y las comunidades autonomas en materia de ejecucion del derecho comunitario (Sentencia del Tribunal Constitucional 252/88. de 20 de diciembre de 1988)» in 27 *RVAP (Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria)*.

— Bai Elkartearen zuzenbide konparatua kontsideratuz Alemania, Italia eta Belgika kasu —non autonomidun erregioak eta Lander Elkarteko zuzenbidea eta aktuak betearazteko gai diren.

— Bai interpretazio sistemiko eta funtzional bati atxikituz (hau da, Estatuaren 20.3.gn eta 20.5.gn atalak kontuan edukirik eta Estatu Espainiarraren antolakuntza pluralista berria eta kompetenzien banaketa —*ratione materiae*— errespetatuz).

— Bai nazioarteko harremanen arlorako goian emandako irizpideen ildotik jarraituz (nazioarteko harremanak eta Elkartearrekiko harremanak ez dira gai berezirik, beste gai asko planteatzen diren arloa baizik).

— Eta bai Elkarteen zuzenbidearen berezitasuna kontuan hartuz, non Estatu Partaide bakoitzak bere obligazioak betetzeko garaian Estatu Partaide horren kompetenzi banaketaren eta administrazio antolakuntzaren printzipioen arabera betetzen dituen.

— Orduan derrigorrez onartu behar da EKAK (Catalunyako komunitatearen kasuan bezala) Europar Elkarteko gaietan kompetenziarik baduela (15).

2.2.2. 1986.eko Apirilean proiektu bat diseinatu zen, «proyecto de Convenio de Cooperacion entre el Estado y las Comunidades Autonomas en asuntos de las Comunidades Europeas» izenekoa, non koordinazio organo baten eraikuntza eta espainiar Bruselako (europar Elkartean) ordezkari eta egonkorraren baitan komunitate autonomoen *behari* baten eraketa aurreikusten diren. Beste koordinazio tresna bat zera da: Administrazio Publikoetarako ministrariaren agerpena Comision mixta Congreso-Senado delakoaren baitan eta Europar Elkar/Espainiar Estatu/Komunitate Autonomoen erlazioaren koordinazioaz azalpenak emateko eta parlamentarien galderak erantzuteko. Honetaz aparte administrazio ezberdinen «Conferencias intersectoriales» direlakoen aukeraz mintzatu da. Baina gai hauetako garapenik ez da gertatu eta, baikorrak izanda ere, oso koordinazio gutxi dago.

2.2.3. Gaurko marko juridikoan posible eta politikoki desiragarri litzateke partehartze bikoitzaren (Estatua-Komunitate Autonomoa) sistemaren bat eratzea, Komunitate Autonomo bati dagozkion gai zehatzen inguruan. Zentzu orokorrean eta Europar Elkar/Estatua—Komunitate Autonomoen koordinazioa aurrera eramateko juridikoki posible eta politikoki desiragarri litzateke organo aholkulari eta erabakior batzuen eraketa, non Komunitate Autonomo guztien ordezkariak eta administrazio zentralaren ordezkariak parte hartuko luketen. Eta Senatuaren baitan posible eta desiragarri litzateke gai honetarako Komunitate Autonomoko senatoreen komisiorekin bat eratzea.

Partehartze eta koordinazio motek zer nolako intentsitatea izan dezakete? Informazio eskubide hutsetik, negoziaketa prozesuan parte hartze, negoziazio zuzenetik igaroz, Komunitate Autonomoaren baimen beharrezkora posibilitate asko dago baina EKArekin eremu juridikoan intentsitate gutxiko formulak besterik ez dira posible (16).

2.2.4. Europar Elkarteko zuzenbidearen sorkundeari dagokionez elkarteko zuzenbideak ez digu ezer esaten Estatu Partaideen egiturari buruz. Europar

(15) Ikus, ANDRES NAVARROK egin duen azterketa, gai honi buruzkoa, «Análisis Comparado de las leyes del Estado, del País Vasco y de Cataluña, de delegación en los respectivos gobiernos para la aplicación del derecho comunitario europeo», 19 *Revista Vasca de Administración Pública*, 1987: 141-152.

(16) GURUTZ JAUREGI, *op. cit.*, 83gn h.

elkartearen erabakitze prozesuan Estatu Partaideek nola hartzen dute parte? Elkarteko zuzenbide deribatua Komisio edo Batzorde europarraren inizatibaz hasten da. Batzordeak Estatu Partaideko adituekin eta presio taldeekin harremanetan jartzen da. Proposamena egiten denean Ministrarien Kontseiluari pasatzen zaio, non Estatu Partaideen ordezkariak proposamena eztabaidatuko duten. Beraz benetako galdera da zenbat botere Estatu Partaideak bere barruko administrazio autonomoei ematen dien baina hau ez da elkarteko zuzenbidearen arazorik baizik eta Estatu bakoitzeko eraketaren arazoa. Goian esan dugun bezala Espainiar estatuak ez du oraindik arazo hau argitu.

2.2.5. Bestalde, Euskadik Europar Elkartearen zuzenbide deribatuaren araugintzan parte hartu beharko luke (negoziaketan eta araugintzan, COREPERen) bere kompetentzia barruko gaiaren bat jokoan dagoen bitartean; *ratione materiae* printzipioaren arabera berriz. Saiatuko gara gaurko egoeraren irudi bat ematen:

Elkarteko zuzenbidearen Estatu Partaideko ezarpenari dagokionez (EEEaren 189. atala) erreglamentuak berez eta zuzenki ezargarri dira; ez dute egokitzerik behar Estatu Partaideen zuzenbidetan; baina direktiben kasuan, teorian Estatu Partaideari emaitzak bakarrik exijitzen zaizkio, inplementazio bideak eta formak Estatuak berak hautatuko dituelarik. Arriskurik larriena Europar Elkartearen direktiben ezarpenean datza: Europar Batzordeak askotan oso direktiba zehatzak egiten ditu zeintzuk ia ia *self-executing* diren; hau da, hain zehatzak dira ezen ez dutela ezargarri izateko garapen edo egokitze araugilerik behar. Eta pentsatzekoa da direktiba horiek Komunitate Autonomoen kompetentziak ukitzen dituzten heinean Komunitateen araugintza ahalmena gutxituko dela; horrexegatik komunitate autonomoek direktiba horien egitasmoen eztabaida prozesuan (COREPERen batez ere) ez bakarrik informazio jaso, baita behari gisa egon (Landeren kasuan bezalaxe) eta ahal den neurrian parte hartzea ere bai eskatzen dute. Zentzu honetan administrazio zentrala eta administrazio autonomikoen arteko koordinazioa beharrezkoa da eta gaurko koordinazio ezaren ondorioak bistan dira, Arrantza eta Nekazaritzarako Ministeritzaren aurkako administrazio autonomiko batzuek Tribunal Constitucionalari aurkezturiko errekurtsioak lekuko.

2.3. Aukera politikoa

Orain arituko naizen galdera nahiko zaila da eta ikuspuntu politiko batetik hurbilduko natzaio. EKAaren eremu juridikoa aztertu ondoren, azterketa juridikoa egin ondoren, galdera politikoa gelditzen zaigu? Eremua onartu ala eremuaren aldaketa bat aldarrikatu. Galdera politikoa da bai, baina ez naiz alderdien politikan sartuko. Posible da errealitate juridikoa eta asmo politikoak ez berdinak izatea. Estrategia politiko bat diseinatzerakoan guztiz beharrezkoa da errealitate juridikoa kontuan edukitzea; horrela aurrerabide posibleak garbiago ikusten dira eta traba juridikoak kentzeko esfortzuak bideratzea errazago egiten da. Baina tamalez askotan ematen dira aukera eta traba juridikoetaz ahazten zaien estrategia politikoak edota tramankulu juridikoetan gelditzen diren azter keta politikoak (17). Nire abiapuntu politikoak honako hau da: Euskal abertzaleok

(17) Autodeterminazioaren inguruan 1989-90.ean eman den eztabaidan joera hau zein hedatua dagoen agerian geratu da: eztabaidaren partaide askok (unibertsitateko irakaslerik barne) autodeterminazioaren aurka azterketa juridikoak eginez eta ez arrazoi politikoen bidez argudiatu dute, adibidez Euskadik autodeterminaziorako eskubiderik ez duela defenditzeko espainiar konstituzioak edo nazioarteko zuzenbideak eskubide hori ez diola ematen argudiatu dute.

Euskadiren subiranotasun maila onargarriago bat lortu nahi dugu; maila horrek ez du, lehen ikusi dugun bezala ezinezkoa baita, subiranotasun osoa izan beharrik, ezta ere, edo behintzat ez halabeharrez, gaur egun Estatu Partaideek duten subiranotasun maila, baina bai Euskadiren arazoen eta interesen gain erabakiak hartzeko gaitasuna eskainiko digun maila. Lehen esan dudan bezala estatu espainiarrak ez du Europar Elkartea-Estatua-EKAREN arteko koordinazioa oraindik argitu eta juridikoki posible da euskotarrentzat onargarri litzatekeen partehartze eta subiranotasun maila bat lortzea gaurko status juridikoarekin, baina maila horretara heltzeko protagonista nagusien (Estatuaren ordezkarien eta EKAREN ordezkarien) borondate politikoa eta konpromisua behar da. Estatuko eta EKAREN ordezkariak subiranotasun osoaren erhetorikari eusten badiote konpromesu hori zaila izanen da.

Baina eremu juridikoaren aldaketa aldarrikatzen baldin badugu zer nolako soluzioak bilatuko ditugu? Estatu Partaide berri bat bihurtzea? Estatu espainiarraren parte izaten jarraitzea baina espainiar estatuaren federatze bat aldarrikatuz ala status komunitario berezi bat bilatzen saiatuz? eta kasu honetan status horrek nolako izan beharko zuen? Estatu Partaide berriaren opzioa politikoki eta juridikoki oso zaila da. Lehenbizikoz euskal alderdien artean momentuz ez dagoen adostasuna lortu behar da, eta gero estatu espainiarrarekin banatze akordio bat lortu behar da, eta gero Europar Elkartearen Euskadiko sarrera negoziatu behar da (horretarako Estatu Partaide guztien oniritzia behar da). Oraindik ez dugu gure nazioaren lurraldekotasunaren arazoa —Iparralde eta Nafarroa— konpondu. Estatu berriaren aukera baztertzeko badugu, edo epe luzerako uzten badugu epe laburrerako *status komunitario bereziaren* transiziozko aukera gelditzen zaigu. Status komunitario berezi horretaz esan beharra dago gaurko Europar Elkartearen ez dagoela horren precedenterik, baina horrek ez digu tratatu bekar; Europar Elkarteak precedenterik, baina horrek ez digu tratatu behar; Europar Elkarteak eratu zirenean ere ez zegoen horretarako inolako precedenterik eta hala ere eratu egin ziran. Aukera hau aztertu baino lehenago ikus dezagun European gertatzen ari diren aldaketek zer argitzen diguten.

3. EUROPA BERRIA

Hirugarren zati honetan European egoera berriaz ikuspegi ezberdinetik arituko natzaizue. European, sortaldeko European batez ere, gertatzen ari diren aldaketek zer nolako eragina izanen dute Europar Elkartearen barnean eta azken finean europar estatuaren egituran? Europar Elkartearen barneratze prozesua eta estatu azpiko nazioen eskaerak direla eta estatu europarren statusa zein punturaino aldatzen ari da? Bi galdera hauek bi dinamika ezberdin adierazten dute: Europa osoaren eskenatoki berria eta Europar Elkartearen berezko dinamika. Europako banaketa ideologiko eta geopolitikoa —bigarren Mundu Gerrateosteko banaketa— desagertu da. Europar Elkartea (18) banaketa ideologiko horren

(18) *Stricto sensu* Europar Elkarteak dira: juridikoki hiru Elkarte dago: Europar Ikatza eta Altzairuaren Elkartea lehenbizikoa da, 1952.ean Pariseko Tratatuak eratua, gero Europar Energi Atomikoaren Elkartea edo Euratom dago eta azkenik garrantzitsuena alegia Europar Ekonomi Elkartea; azken bi hauek 1957.ean sinaturiko Erromako Tratatuak eratuak dira. Juridikoki Elkarte bakoitzak bere nortasun juridikoa du, baina politikoki eta instituzionaliki organo amankomunak dituzte (Europar Batzordea, Ministrarien Kontseilua, Parlamentu Europarra eta Europar Justizi Auzitegia) eta Europar Elkarte batetaz mintzatzen da, eta gainera nazioarteko mailan ordezkari amankomun bat dute: Europar Batzordea.

fruitu bat da eta beraz orain «gerrate otza»ren markoaren desagerpenak Europar Elkartearen birmoldaketaren arazoa dakar. Birmoldaketa bi dinamika politiko hauen eraginaz dator baina nire gogoetak bi dinamika hauen arteko elkarreraginetan murgilduko dira.

3.1. Europar estatu arteko erakundeak

Europar Elkartearen inguruko erakundeen eraldaketa bat aurreikusgarri da: alde batetik bloke militarren enfrontamendua desagertu da. Warsaw Paktuaren erakundea desegiten ari delarik. Europako defentsak europar erakunde bat behar omen du europar agintarien ustez (*Western European Union* bezalako bat, edo NATOren ardatz europarra). Bestalde eredu politikoaren kuestioa dago Erdialdeko europar estatuak sartaldeko estatuen ereduaren alde —demokrazia ordezkaria, botereen banaketa, pluralismo politikoa, giza eskubideen babesa merkatu ekonomia, zuzenbidezko estatua— ari dira jotzen eta honen ondorioz europar erakunde politiko baten inguruko proposamenak sortuko dira: seguruenera Europako Kontseiluaren eta Europar Elkartearen zabalkuntza eta eraldakuntza bati ekinez. Zentzu orokorrean Europako estatuak gero eta barneratze prozesu sarkorrago batean daude (19).

3.2. Europar Elkartearen eredu berria

Europar Elkartean (Kontseilu Europarrean eta Parlamentu Europarrean batez ere) konstituzio politiko bat diseinatzen ari da non eredu federalista pisu berezi bat hartzen ari den. Eredu federalista (Alemaniako ereduaren antzekoa omen) estatua eta subiranotasun osoaren teoriarekin nekez ezkontzen da eta beraz europar estatu unitarioek eredu berriari trabak jartzen omen dizkiote Konstituzio berri hori ez bada gauzatzen orduan gutxienez Tratatuaren aldaketa bat suma daiteke, zeinak erabaki prozesuak demokratikoago eta arinago egingo dituen. Antza denez konstituzio berri posible horrek —edo Tratatuaren aldaketek— gaurko egitura politikoa aldatuko du: eredu berri honoko hau litzateke Batzordea (Komisioa) botere exekutiboa litzateke, Ministrarien Kontseilua parlamentuaren kamara gorenaren funtzioak beteko lituzke, lurralde kamararena alegia; Europar Parlamentuak benetako botere araugile eta kontrolatzaile bat bereganatuko luke, eta azkenik Europako Justizi Auzitegia orain arteko errola gordeko luke. Inkognita, gero ikusiko dugun legez, Kontseilu Europarrean dago. Gaurko Europar Elkartean botereen banaketa lau adarreko eredu dago: Justizi Auzitegiak zuzenbidea ezarri eta interpretatzen du eta gatazka juridikoak konpontzen ditu, Parlamentuak ia ez du legegintza botererik eta bere kontrol boterea murrizta da, Batzordea, estatu gaineko organo komunitario jatorra, exekutiboa

(19) Europako Elkartean dagokionez edozein Estatu Europarrak Elkartean partaide bat bezala sartzea eska dezake. Horretarako eskaera Ministrarien Kontseiluari luzatuko dio; honek Batzordean kontsulta egin ondoren Parlamentuaren gehiago absolutuaren baimena beharko du eta azkenik Estatu Partaide guztien erratifikazioa behar da.

instituziotan (Komite ekonomiko eta sozialean, Diru Kontuen Auzitegian eta Inbertsioen Banku Europarrean adibidez) pisu gehiago izanen al du Alemaniak? Gainera, nahiz eta Kontseiluan Estatu Partaide bakoitzak ordezkari bat izan, ordezkari bakoitzak boto kopuru ezberdinak ditu eta Alemaniak besteek baino boto pisu handiagoa eta beraz erabakitze prozesuan, gehiengoak lortzerakoan zeresan handiago izanen al du? Momentuz badirudi gai hauek ez direla juridikoki aldatuko baina maila politikoa Alemaniak botere gehiago irabaziko du.

3.2.2. Ez gaitezen ahaztu juridikoki komunitario ez den instituzio politiko batekin, *Kontseilu Europarrarekin* alegia. Kontseilu honek. Ministrarien Kontseiluarekin nahastu behar ez dena, Estatu Partaideen lehen ministrariak (edota presidenteak) biltzen ditu eta europar gailurretan biltzen hasi zen. Hasieran ez zeukan inolako aipamenik Elkarteko testu juridiko edo politikotan: instituzio espontaneo bat zen. Azkenean Europar Akto Bakarrak bere existentzia eta pisua ezagutu behar izan zuen, errezelu handiz. Europar Akto Bakarraren arabera ez dauka nortasun juridikorik; funtzio politikoak baizik: Elkartearen gidaritza politikoa, Elkarteari (Ministrarien Kontseilua tarteko delarik) garapen juridiko bereziak eskatzea, edo, akordio politikoak lortzea Ministrarien Kontseiluan blokeo politikoak kentzeko, eta kanpo politikaren koordinazioa. Konstituzio berrian posible da Kontseilu Europar honen funtzioak gehitzea eta juridikotasuna ematea. Honen baitan Alemaniak pisu berezia hartuko du batez ere Elkartearen ekialdeko europarekiko politika (*Ostpolitik*) berriari buruz.

3.3. *Europar Elkartearen betiko dilema*

Elkarte Europarrak eratu zirenetik aukera berezi bat eman da: barneratze prozesu sakondu benetako merkatu bakarra lortu nahian (amankomunezko *standardak*, Europa soziala, politika ekonomiko eta monetarioen koordinazioa, ingurugiroaren politika berria...) ala zabalkuntzari ekin Europako beste estatuak Europar proiektuaren partaide berriak bihur daitezen.

Europar Elkartea estatu guztien egonkortasunaren faktore eta indar erakarkorra bihurtu da (22). Europar Elkartean sakontze-zabaltze polemika hau hasieratik eman da: lehenbiziko zabalkuntza 1972.ean gertatu zen Erresuma Batua, Eyre eta Danimarka sartu zirenean (Norvegia sartzekotan zegoen baina erreferendumean norvegiarrek atzera egin zuten beren gobernuak negoziaketak burutuak zituelarik). Une berean Europar Elkarte Ekonomikoaren (EEE) igarotze epea (periodo transitorio) amaitu zen. Gero, 1980.an Grezia sartu zen. Azkenik. 1986.ean Espainia eta Portugal sartu ziren, Europako Akto Bakarra sinatu zeneko une berean, zeinak merkatu bakarrarekiko epeak tinkatu zituen, azkeneko fasea 1992.eko azkeneko egunean amaituko delarik.

Orain, barneko merkatu bakarra burutzear eta Mitterrandek eta Kohlek nahi duten batasun politikoaz serioago mintzatzen ari den horretan, beste garai bat ireki da: barneratze politikoarena eta Elkarteen erreforma politikoarena, eta une berean beste zabalkuntza posible baten aurrean aurkitzen gara. Europar ertaldeko estatuak Europar Elkartean sartu nahi dute: DDR (Ekialdeko Alemania) zena Alemaniaren Errepublika Federalaren eskutik sartu da, estatu bezala desagertuz, Hungariak eta Poloniak aurretik eta gero Txekosloveniak eta Jugoslaviak

(22) HANS-DIETRICH GENSCHEREK Europar Elkartearen *Stabilitätsfaktor und Anziehungspunkte für alle europäischen Staaten* ezaugarri hau goraipatu du, *Der Spiegel*. 281990: 116

(pace) sartu nahi dute: Grezia, Espainia eta Portugaleko kasuekin gertatu den bezala, Bruselar eurokrata askoren ustez ertaldeko europar estatuen demokrazia prozesua Europar Elkartean sarrerarekin kontsolidatu daiteke. (Bide batez aipa dezadan estatu hauek problema nazionala izugarria dela eta Europa mailan problema nazionalari aurrerabide orokor bat eman beharko zaiola). Gainera, orain arte neutralitatean bizitako Suitza, Austria eta Suediaren inkognita dago: EFTAren akordio berri batzuk hartzea, ala pixkanaka Europar Elkartean sartzea.

3.4. Giza Eskubideak eta Europa

Inkognita asko dago eta erdi eta sortaldeko Europan gertatu dena (eta gertatuko dena) oraindik interpretatzeko dago: mundua eraldatu da eta orain eraldaketa hori interpretatzea eta gureganatzea dagokigu (Marxen Feuerbachekiko tesiari buelta emanda). Europan dauden problemen artean giza eskubideen arazoa garrantzitsuenetakoa da: Europar Giza Eskubideen Komentzioa (*The European Convention for the Protection of Human Rights and Fundamental Freedoms*) eta Europar Elkartean zuzenbidearen arteko erlazioa tinkatu behar da; orain arte egin ez dena. Giza Eskubideen estatu gaineko babesak estatu boterearen bidezko suposatzen du eta hau, berriz, ez da estatuaren teoria klasikoarekin ondo moldatzen.

Europar Elkartea eredu demokratikoan eta Giza Eskubideen errespetuan oinarrituko baldin bada, orduan Europan Konstituzioa eztabaidatzerakoan gai honetaz pentsatu beharko da alegia Konstituzio berri horrek Giza Eskubideen aldarrikapen berezi bat izango al du edo Europar Komentzioaren bereganatze erreferentzia berezia egingo al du. Dagoeneko Parlamentu Europarrak Giza Eskubideen deklarazio formal bat egin du (23), baina askoren ustez deklarazio honek ez dauka indar juridiko berezirik eta teknika juridikoari dagokionez Europar Komentzioaren kopia bat da, nahiz eta gai sozialetan aurrerakoiago izan eta ingurugiroari da kontsumitzaileen eskubideei erreferentzia egin; bestalde Komentzioaren sistemarekiko Elkartean harreman instituzionalak oraindik argitzez daude. Zer gertatuko da egunen batean Europako Kontseiluko Partaide orok Europar Elkartean Partaideak ere ba dira? Bi nazio arteko erakunde hauek mantenduko al dira? Ala bestela Europako Kontseiluaren garrantzia gutxituko al da Europar Elkartean bere Giza Eskubideen babes sistema berezia eratzten baldin badu? (24).

Sistema batekin edo bestekin euskal, skotiar, galestar, bretoiarrak abertzaleok zenbait kezka dugu: Giza Eskubideen sistemak herrien eta gutxiengoaren eskubideak — hizkuntzarekiko eskubidea, autodeterminazioaren eskubidea, arriskuan dauden kulturak babesteko neurri bereziak hartzeko eskubidea atab.— jasoko al ditu ala giza eskubideen eredu liberalean geldituko al da? Ekialdeko Europan problema nazionalak, mendebaldeko Europan bezala, ez dira oraindik konpondu (Europar Segurtasuna eta Elkarlanerako Konferentzia

(23) Resolución del Parlamento por la que se aprueba la declaración de los derechos y libertades fundamentales, Diario Oficial de las Comunidades Europeas, n.º C. 120/51, 1989.eko Apirilak 12.

(24) Europar Ekonomi Elkartean 230.atalak dio Elkartean Europako Kontseiluarekiko elkarlan mota egokiak eratuko dituela, baina betebeharrak ez da oraindik gauzatu.

CSCE bere Pariseko bileran gaur egungo *statu quo* geopolitikoaren bermatzea eta «arazo nazionala» ez ukitzea erabaki berri du) eta Europa ekialdeko estatuak Europar Elkartean sartzen badira problema nazionala areagotuko da. Ez da ahantzi behar EEEko Tratatuak bere preambulan Europako herriei buruz mintzatzen dela, Elkartearen azken fineko funtsa politikoa Europako herrien arteko gero eta Batasun lotuago bat dela aldarrikatuz. Ez da ahantzi behar aipaturiko Europar Parlamentuaren deklarazioak bere preambulua. «Europako herrien izenean» hitzekin hazten duela. Parlamentuaren testuan herrien eskubideak ez dira jaso. Parlamentuak giza eskubideen kontzeptio gizabanakoi bat du. Eskubide kolektiboei dagokienez eskubide sindikalak soilik onartzen dira. Hala ere badira zenbait atala non herrien eta Kulturen existentzia gizabanakoen eskubideen aurrealdintzat jo daitezkeen (25), hala nola:

— Diskriminazioaren debekua dela arrazagatik, koloreagatik, sexuagatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik, direla iritzi politikoengatik edo jatorri nazional edo sozialagatik, dela gutxiengo etniko baten partaide izateagatik (3.2. atala).

— «Giza duintasuna bortxaezinezkoa da» (1. atala).

— Hezkuntzarako eskubidea iritzi filosofikoen arabera (16. atala).

Hizkuntzarekiko errespetuak eta hezkuntzarako eskubideak hizkuntza bat babesteko eta gizarte teknologikoan garatzeko neurriak eskatzen dituzte. Eta neurri hauek hartu ahal izateko ekintza instituzional bat behar da. Giza duintasunak edo dignitateak ere pertsonaren dimentsio guztiekiko errespetua eskatzen du: dimentsio kulturala eta hizkuntzazkoa (ohiturak, hizkera, etab.). sinismen sistemaren dimentsioa... Giza Eskubideen aldarrikapenek hitz borobilak baino zerbait gehiago lortu nahi badute eskubide horiek posible egiteko neurriak inplikatu behar dituzte.

3.5. *Europar Elkartearen geopolitika*

Beste dinamika bat nabaritu da Europar Elkarrekin, oraingoan dinamika geopolitiko bat. Elkarrekin sortu zirenean sei Estatu Eratzaileak nahiko homogeenok ziren bai ekonomia aldetik, bai gizarte mailan (askotan esan ohi da elkarrekin frantziar eta italiar nekazaritza eta Alemaniaren industriaren arteko konpromezu bat zirela, tartean bataren ikatza eta bestearen altzairua zeudelarik).

Zabalkuntzarekin oso ekonomia ezberdinak sartu ziren: Dinamarkako eta Eyrekoak Erresuma Batuekin truke asko zuten eta Erresuma Batuen ekonomia zaharkitua Commonwealtheko herriein lotura handiak zituen (gogoratu Elkarrekin negoziatzen ari zirenean Erresuma Batuak ez zuela parterik hartu nahi izan, eta metropoli honen kolonia ohien inguruan kontzentratu zela). Beraz hiru estatu hauen sareak aldaketa garrantzitsuak suposatzen zituen bai Elkarrekin geografian politikoa eta ekonomikoan, bai bere oreka ekonomikoan: pisua iparralderantz zioan.

Gero Greziaren sarrerarekin beste aldaketa bat gertatu zen: Mediterraneoaren ardatza (lehen Italia ordezkari nagusia zelarik, Frantziaren Mediterraneoaren proiektioa ez zelako hain pisutsua) eta Elkarrekin geopolitikan jauzi izugarri bat: Greziak ez zuen beste Estatu Partaiderik bere mugen bestaldean

(25) Ikus nire Nota «Giza Eskubideak Gaur» n 27 Revista Vasca de Administración Pública 1990 non herri eskubideen inguruko gogoeta teoriko batzuk egiten dudana.

gutziz isladaturik zegoen. Gainera Grezia, nahiz eta politika aldetik sartaldean (mendebaldean) egon, geografia aldetik Europako ekialdean dago, ez bakarrik hori, Grezia, Hungaria, Txekoslovakia, Yugoslabia, Polonia eta Albaniaren ekialdera dago.

Mediterraneoaren dimentsioa Espainia eta Portugalen sarrerarekin areagotu da. Baina bi estatu hauen sarrerak beste dimentsiorik ireki du: Atlantikoaren ardatza, eta Ibero Amerikaren ardatza. Azken honek Europar Elkarteari aukera komertzial izugarriak, eta baita mundu politikan influentzia arlo bat eskaintzen dizkio (kooperazio akordioen bitartez, Lome Komentzioak Britainiar eta Frantziar kolonia ohiekin egin duen bezala).

Atlantikoaren ardatza azalean arazo ekonomiko bat da: nolatan Europar Elkartearen zentro ekonomikoa London, Brusela, Lyon, Milan eta München-Frankfurt inguruan dagoen eta nolatan Mediterraneoaren ardatza geopolitika aldetik hain garrantzitsua den (pentsa Mediterraneoaren bestaldera mundu arabiarra dagoela) ba atlantikoaren ardatza bazterturik edo geratu da. Espainiak, Elkartearen zentro ekonomikoan ez egonik eta periferian ez geratzeko, badirudi Mediterraneoaren aldeko dema egin duela. Orduan atlantikoko lurraldeak edo erregioak hasiak dira kezkatzen: Eyre, Portugal, Skotia, Cymru (Wales), Breizh, Aquitaine, Galiza, Asturias eta Euskadi. Lurralde hauen artean Estatu gutxi dago: Eyre eta Portugal oso Estatu Partaide ahulak dira baina Atlantikoaren ardatzean interes handia dute; Frantziak ez du halako interesik, Europako zentro ekonomikotik gertu baitago eta bestalde Mediterraneoan ardatzean sartzen da, Espainiaren kasua aipatu dugu, eta Erresuma Batuen zati bat, Londonen ingurua, Europako zentro finantzarian dago eta estatu honek orain arte egin dien politika Londoni begira egon da.

Orduan zer gertatzen da beste lurraldeekin: Skotia, Ulster, Cymru, Breizh, Aquitaine, Ipar Euskadi, Hego Euskadi, Cantabria, Asturias, Galizarekin? Horiek ez dira Estatu Partaidetik, beste Estatu Partaideren zatiak baizik. Nola defendituko dute beren interesak? Estatu Partaideen bitartez? Lehen esan dugu Estatu Partaide horiek beste dimentsioen alde egina dutela apustua. Beraz, lurralde hauek Europar Elkarrengan halako status berezi baten alde jo lezakete. Baina zein status? Hona hemen Lurraldeetako Europaren arazoa: ezin duela ekonomiaren kontu hutsa izan, politikaren kontua da baita ere. Eta dimentsio geopolitiko honekin batera dimentsio politikoa dator. Europar Elkartearen konstituzio politikoa eztabaidatzen ari den honetan Euskadi eta Skotia bezalako nazioak status komunitario berri baten bila jar daitezke: lurralde kamarran (Kontseilu berrian) beren lekua ziurtatuz, Europar Parlamentuan presio talde bat eratuz, COREPERen ordezkariak lortuz, Batzordean status komunitario berezia duten nazioen batzordekia (Dirección General) lortuz etab.

4. HAMAIRUGARREN IZARRA?

Baina herri hauen eskubideak nola babestu? Horra hor gakoa. Instituzionalki zer antola daiteke? Lehen ikusi dugun bezala Euskadirentzat aukera nagusiak bi muturren artean daude: orain arte bezala, EKAaren interesak Elkartearen Euskadik zuzenean defenditu ezinik jarraitzea ala Estatu Partaide berri bat, Europar ikurriñaren «izar» berri bat bihurtzea. Bi mutur hauen akatsak eta zailtasunak ez ditugu aipatzeke utzi. Datorren Europa berrian gaurko statusa mantentzeak status komunitario bereziari uko egitea suposatzen du. Estatu berriaren aukera utopikoa da. Utopikoa ezen gaurko egoera politikoan Euskadi hiru lurraldetan

zatiturik dago eta hiru lurralde hauen biztanleen arteko akordio bat lortzea zaila da oso, gainera espainiar eta frantziar estatuarekin negoziatu beharko litzateke.

Subiranotasunaren teoria klasikoaren zimarkua aztertu dugu. Teoria horrek ezin ditu lehen unitario ziren estatu europarren eraldaketak azaldu, ezta Europar Elkartearen bezalako estatu gainerako erakundearen subiranotasun mugatua ere. Bi eraldaketa hauen arteko erlazio dialektiko bat dago: bai Estatu Partaide txikiei, hauek nazioarteko arloan botere politiko, ekonomiko etabarreko gutxi baitute. bai estatu azpiko nazioei estatu gainerako erakunde baten eskutara estatuaren subiranotasun partitze hori ez zaie inportik. Baina subiranotasun klasikoaren doktrinan gogor eusten dioten estatuak subiranotasun partitze horren aurrean oso ezezkor agertu dira, beraien ustez Elkartean subiranotasuna ez da partitzen. galtzen baizik.

Hala ere Europar Elkartearen sartzek ez du derrigorrez subiranotasun galtzerik suposatu beharrik. Horrela pentsatzen dutenek estatu gehiegi idealduta eta goraiatzeko egiten dute; subiranotasuna estatuaren baitan eta ez hiritarren baitan kokatuz. Estatu bateko hiritarrek Europar Elkartearen sartzek erabakitzen baldin badute, Elkartean botere bereziak emanez, beraien erabakia legitimotzat, subiranotzat jo behar da eta Nazio-Estatuak askok ez dute hau onartzen, azken finean subiranotasuna nazio-estatuaren bakarrik kokatzen dutelako. Teoria federalista eta teoria demokratikoa aise uztartzen dira: herri federatuen hiritarrak dira subiranoak eta beraiek erabakitzen dute beren herriak bere burua nola antolatu behar duen eta norekin elkarlotuko den. Adibidez Alemaniako *Grundgesetzek* bere 20.(2) atalean dio estatuaren autoritate guztia herritargotik eratoritzen dela eta herritargoak egikararatu duela. Kontua beraz subiranotasuna konpartitzea da, eta ez galtzea.

Lehen ikusi dugu nolatan garapen ekonomikoak estatu baino txikiagoak diren erregio naturalen garrantzia azpimarratuko duen eta nolatan Europar Elkartearen politika erregionalak erregiotan dauden herri arduralarritza edo administrazio ezberdinen —direla estatu administrazio zentralak, direla erregioen, komunitateen edo Landeren administrazio autonomoak, direla beste antzeko udal administrazioak— koordinazioa eskatzen dute, bai politika erregional berezi bat diseinatu eta aurrera eramaterakoan, bai administrazioen diru laguntzak koordinatzerakoan. Estatuaren zeharkako mediazioa ez da arlo honetan onartzen: administrazio ezberdinek autonomia eskatzen dute Bruselarekin (Batzordearekin) zuzenean tratatu ahal izateko. Zentzu honetan Europar Elkartearen ikuspegitik administrazio ezberdinen status komunitario berezi bat posible da (eta halako zerbaitek hasia da gertatzen Elkarteko Politika Erregionalarekin). Ikusi dugu baita ere nolatan giza eskubideen kontzeptio berriak herrien eskubideak —autodeterminazioa eta printzipio federala, kulturen eta etnien eskubideak— aintzakotzat jo daitezkeen eskatzen duen. Europako batasun politikoak bi faktore hauek ezin ditu baztertu. Erregioen garapen naturala eta problema nazionala elkarloturik daude Europan: Europar Elkartearen estatu azpiko nazioen ondoreza agerian planteatzen hasi da.

Estatu federatua/Estatu federalaren arteko dialektika Estatu Partaide/Europar Elkartearen arteko dialektikaren antzekoa da. Baina estatu unitarioak, batez ere plurinazional direnak ez dira dinamika honekin ondo moldatzen, subiranotasuna estatuaren soilik kokatzen dutelako, eta honen ondorioz ez dute subiranotasun horren zatiketarik onartzen, ez estatu barman (federazio bat bilakatuz), ez estatu gaineran (beste estatuarekin federatuz). Elkartearen garapenak doktrina absolutistaren porrota erakusten digu: zuzenbide komunitarioan Estatu

Partaideen kondarreko botereek ez dute erreserba statusik eta Estatuaren subiranotasunak ezin dio Elkarteari inolako mugarik jarri hau bere kompetentzien barman mugitzen denean (26). Baina estatuaren diskurtso erhetorikoan subiranotasunaren doktrina absolutistak oraindik ere dihardu. Europa berriarentzat bere dogma zaharkituak ez zaizkigu balio. Printzipio normatibo edo ideal instituzional berrien beharrean gaude: kooperazio edo elkarlan, autodeterminazioa eta federalismoa, autogestioa, solidaritatea, herri arduralaritzea ezberdinen koordinazioa, ekintza publikoaren maila ezberdinen koordinazioa, subiranotasun konpartitua eta mailakatuaren printzipioa, etab.

Europar Elkarteko konstituzio berria ez da oraindik gauzatu eta ezin da prognosi zehatzik egin, ez dakigu eta, estatuak zein puntutaraino mantenduko diren edo administrazio autonomoen koordinazio nola gauzatuko den; baina ez badugu bazterturik geratu nahi konstituzio honen eztabaidan parte hartu beharko genuke euskotarrak. (Abiapuntu bat mugaren kontzepzio berri baten alde lan egitea litzateke, mugaz bestaldeko harremanak eta elkarlana tinkatuz joan; muga banatze lekua izan orduko elkartze lekua bilakaturik.) Eta parte hartu ahal izateko euskaldunon arteko elkar ulermena guztiz beharrezkoa da. Bestela gure bazkide posibleek esanen digute lehenbizikoz etxeko sua etxeko hautsekin tapatu behar dugula.

Gainera oso komenigarria litzateke beste estatu azpiko nazioekin, gureak bezalako kezkek eta problemak dituztenekin, batera lan egitea —skotiarrekin, korsikarrekin, bretoiarekin, katalandarrekin etabarrekin— presio talde bat eratuz. Presio talde horrek estatu azpiko nazioen borroka baketsua zuzendu eta aurrera eraman beharko luke, hamahirugarren piztu gabeko izzarren ikurra eta ordezkari izanik, Elkarteko instituzio politikoaren aurrean (Parlamentuan, Batzordean, Ministrarien Kontseiluan eta Kontseilu Europarrean) taldearen eskaerak eta kezkek agertuz. Estatu Partaideekin harremanetan jarri beharko luke talde horrek, Estatuaren ulermena eta laguntza lortzearren. Eta hona hemen Elkartearen politika erregionala eta estatu azpiko nazioen eskaeren arteko lotura. Lehen aipatu dugu Atlantikoko ardatzean interes handiko nazioen artean Estatu Partaide statusa bi nazioek bakarrik dutela: Eyre eta Portugal. Beste nazioak, Skotia, Wales, Breizh, Euskadi, Galizia estatu azpiko nazioak dira. Nazio hauek bi Estatu Partaide horien bultzada lortzen saiatu beharko lirateke, status komunitario berezi batetarentz abiatuz.

Baina ez pisu gutxiko bi estatu horiena bakarrik. Pisu handiko estatuaren laguntza beharrezkoa da baita ere. Eta egitura federala duten estatuaren ulermena bereganatzea ez da hain utopikoa. Alemania birbatua Elkartearen aurrean aurkeztu berri duen txosten batean estatu azpiko nazioen status komunitarioaren antzeko zerbaiten alde azaldu da. Artikulu hau Germaniarren proposamena komentatuz bukatu nahi luke.

Alemania berriaren ustez Elkartearen baitan estatu azpiko nazioen eskubideen aldarrikapen bat egin behar omen da eta eskubide horiek babestu ahal izateko nazio horiei Europako Justizi Auzitegiaren aurrean akzio juridikoak ekartzeko

(26) Ikus Europar Justizi Auzitegiaren epaia *Batzordea v. Alemania*. 153/78 kasuan (1979) ECR 2555, ikus baita ere *Cassis de Dijon*, 120/78 (1979) ECR 649 eta *Ratti*, 148/78 (1980) ECR 1629 kasuak: zenbait Estatu Partaidek argudiatu zuen EEE Tratatua 36. atalak Estatuari halako babes konstituzionala ematen diela zenbait botere erreserbatuetan (*reserved powers*) baina Europar Justizi Auzitegiak esan zuen 36. atalak ez diela Estatu Partaideei inolako gairik erreserbatzen, atal horrek egiten duena zera da: Estatuaren legeek zenbait kasu jakinetan ongien mugimendu librearen printzipiotik derogazio bat ametitzea.

eskubidea ezagutu behar da. Horretarako Tratatu eratzailen aldaketa bat beharrezkoa omen da. Europako Ekonomi Elkartearen Tratatuaren 5. zatiaren 1. kapituluaren 5. sekzioak eta Auzitegiaren zeregina eta jurisdikzioa arautzen dute, akzioak ekartzeko eskubidea Estatu Partaideei, Elkarteko instituzioei —Batzardeari eta Ministrarien Kontseiluari— eta, kasu jakin batzutan, pertsona juridiko edo naturalei ezagutzen zaielarik. Akzio bat Auzitegiaren aurrean ekartzeko eskubidea estatu azpiko nazioei juridikoki ezagutu ahal izateko bi aukera dago: edo Auzitegiak berak interpretazio oso zabal bat egitea edo Tratatu aldaketa.

Lehenbiziko aukera problemaz josirik dago: Europako Justizi Auzitegia instituzio juridiko bat da eta ez instituzio politikorik. Interpretazio zabal hori nolakoa litzateke? Seguraski «Estatu Partaideak» esaten denean «Estatu Partaideak edota hauen azpian dauden autonomiadun entitate politikoak» irakurtuz. Europar Parlamentuaren jurisdikzio kompetentzia onartzeko Tratatuak «Batzardea edo Ministrarien Kontseilua» dion bakoitzean «Batzardea, Ministrarien Kontseilua edo Parlamentua» esan nahi duela Justizi Auzitegiak interpretatu duen bezalaxe. Justizi Auzitegiak interpretazio ausart hau zein puntutaraino ametituko lukeen ez dago batere argi, baina Europar Elkarteko beste botereek seguruenera e? dute interpretazio hori onartuko.

Bigarren aukera Tratatu aldaketa da. Horretarako. 236. atalaren arabera Estatu Partaide baten gobernuak edo Batzardeak Ministrarien Kontseiluari proposamena aurkeztuko diote; Kontseiluak Parlamentuari (bai eta kasu batzutan Batzardeari ere) aholkua eskatu eta gero bere iritzia azalduko du ea aldaketak zehaztearren Estatu Partaideen gobernuen Konferentzia berezi bat antolatu behar den eta azkenik, aldaketak baliozkoak izateko Estatu Partaideek erratifikatu beharko dituzte haien konstituzioen arabera. Prozedura honek oso konplikatu dirudi baina, Alemaniak esan duen bezala. borondate politikoa egonez gero zailtasun juridiko hori ez da gainditu ezina.

Dena den adierazgarri da oso halako proposamena Alemaniak egitea. Gaur egun Alemania Elkarteko Estatu Partaidetik indartsuena da, bai ekonomikoki bai politikoki, Europako batasunaren motorra izaki. Baina Alemania berria. lehen ikusi duguez, zentzu askotan ez da estatu tradizional bat. Ekialdeko bost Landerrek autonomi berezi bat beharko dute Alemaniaren baitan eta Elkartearen baitan eta horretarako status berezi bat behar omen dute. Gainera Alemaniak egitura federala du eta beraz subiranotasun konpartituaren doktrinatik hurbil dago eta honen ondorioz posible zaio egin berri duen proposamena egitea, bere federalismoa Elkartera eramanez. Halako erreforma bat subiranotasunaren kontzepzio zaharkituari atxikitzen zaien Estatu Partaideek onartuko ez zutenaren beldur gara.

Elkarteko estaturik kementsuena estatu azpiko nazioen kezka jabetzen hasi baldin bada baikor izateko arrazoirik ez zaigu faltako. Alemaniak nazioa autodeterminazio printzipioaren bitartez birbatu da. Beste nazioen autodeterminaziorako eskubideaz Alemania arduratzeak ez gaitu harrutuko. Beste Estatu Partaideen jarrera nolakoa izanen den ez dakigu baina estatu azpiko nazioen egonezinenaren berria Elkarteko instituzio politikoetara plazaratzen denean status komunitario bereziaren arazoa pil-pilean hasiko da. Ordurako euskaldunoi gertatu litzaiukeen gauzarik ederrena eta onuragarriena elkarrekin ados izatea eta beste estatu azpiko nazionalistekin fronte amankomun batean lan egitea litzateke.